

## **GAURKO GAZTEEN FEDEA**

(Gazteen urtean)

Aurtengo mundu guztiko «Gazte-Urteari» ez deitso jaramonik askorik egin «Karmel» aldizkari onek. Lantxo au ez doa utsune ori beteten, geien baten «parte-txaplata» baizik ez da izango. Ta gainera lantxo au oso mugatua izango da. Gai aldetik gazteen fede-munduari lotuta. Ta bestetik 16-25 urteko gazteak ditut gogoan. Bein 25 urte pasau ezkeru, gaztaroa joan da pikutara! Ta 16 urtetik berakoak be naiko ume gorriak ditugu. Beste au be esan bearrean nago: nire esperientzia Bizkaiko erri baten barnean osoturik dagola. Ta ez erri osoan be. Erri orretako «marginatuen» ikastetxe irakasle ta parrokiko gaztedi-katekesiaren arduradun bezela oiñarrituta dago esperientzi au. Azken 6 urteotan, 300 bat gaztekin izan ditut artu-emonak ta auron ainbat inkesta daukadaz. Baita be, erri au, Bilbotik urrin ez dagonez, badau uri kutsua, erri kutsua galdu be. Auto-bidez erdibituta, ez dauko olako erri-kasko berezirik be. Erri-biotza palta jakonez, ortik datorkio erritarrei euron «barru oztasun» antzekoa edo. Salbuespen guztiok gogoan artuta, nai neuke gaurko gazteen fedea zerbait azertu.

### **Demokraziaren semeak**

Ez da gauza erreza gazteei buruz itzegitea. Baiña gauza batzuk iñoiz aaztu ez bearrekoak doguz, au da, gaztedia ez dala

utsetik, «zerotik», sortu. Arriskutsua ta parkatu eziñezko guzurra da gazteen problemak gaurko gizartetik kanpo ateratzea. Orduan bai badala zaila gazteei buruz itzegitea. Komunikabideen guzurrez «gazte izatea amets lilluragarri biurtu da, zaartu nai ez daben gaurko gizon emakumeentzat». Gazte izatea absolutu biurtzea kaltegarritzko ondorioak dakaz gazteentzat, gaztedia bizitzaren urtealdi bat besterik ez dalako. Esaterako, 68 gazte-iraultzaileen gidariak eziran atzo goizeko ume gorriak, Freud, Marx, Marcuse ta abar baino. «Zerotik» ez dator ba gaurko gure gaztedia be.

Gaurko gazteak ez dauke antzik be orain 15-20 urteko gazteekin. Urte areitako gazteek etorkizunari begira bizi ziran. Ezeben ezagutu ez ekonomia krisirik. Lanpostuak edonon aurkitzen ebezan ta demokraziaren egarria sentitzen eben euren odol garbietan. Gaurko gaztedia, ostera, demokrazi bidetan moldaturik bizi da umetatik. Inondik be ez dautse gaur politika gairik erlijio klasetan aitatuko. Ta lengo urteetan ezegoan beste santurik: «politika ta demokrazia» izan ezik. Demokrazian ezi direnez, lengo gazteak baino amor-emoilleagoak ta zabalagoak agertzen jakuz, bai fedean ta bai sozial gauzetan be.

### **Gazteen fedea**

Badira gure artean gazte fededunak. Ixe geienak. Ta fede maillan naiko desberdintasuna ageri da. Gautik egunera bezelako aldia sentitzen da talde batzuetatik besteetara. Ez dira bardiñak eskola publikoetan edo ikastoletan edo fraide-monjetan ezitako gure gazteak. Desberdintasun ori nabarmentzen da baita umekatekesitik gazte ketekesira mailaz maila dabizenetik, Gure Jauna edo Sendotzakora bakarrik datozenetik be. Beste gauza bat ikusten jake.

Fede desberdintasuna aundia egon arren, bai oneekin ta bai besteekin, gazteon biotz barnean fede egarri bizia ikusten da. Orain urte batzuk ankar gora botateko kristau balioak, gaur zuzen-zuzen onartuak dira. Edonon naiz kolore batekoak naiz beste-koak, ainbat gazte talde ditugu euren kristau bizitza sendotzen.

Zer esanik ez dago, kristau barne bizitzan askotaz aberatsagoak dirala gaurko gazteak. Orain 10-15 urte pentsau eziñezko esperientzia dauke gure gazteek otoitz bizitzan, esaterako: Orduko ezizailleak geiago arduratu ziran gazteei gauzak emoten bizitzako benetako arrazoiak baino. Ortik datorkio belaunaldi orreri biotz barneko utsune galanta. Fede maillan daukagun problema andiena ez da gazteena, 30-40 urteko pertsona eldueva baizik. Oneik, adibidez, Elizaren aurka sentitzen dabenek garrantasun ta gorrotoa ez dabe gaurko gazteak inondik be agertzen. Gazte taldetxo gogorren bat bada euren artean, 30 urtetik gorako kurumiño garrantatu bat izango da. Ez inguruan, gaurko gaztediak ez dau olako garrantasunik ez gorrotorik fedearen edo Elizaren aurka.

Daukadazan artuemonetan ta inkestetan fede mundua pozik onartzen dau gaurko gaztediak. Ez da itzuli makala or ta emen ageri dana. Kristau indarra barriro be iraikiten asi da gazteen barnetan. Inkestetan ikusten danez, kristau balioz beterik datorkigu gure gaztedi barria. Inoiz ez neban uste, olako pozgarritzko aldaketarik izan leikenik ain urte gitxi barru.

Orain 15-20 urte banatzen ebena, gaur alkartuta daukaguz. Inkesta baten bi galdera oneek egin jakezan: 1) Zer da kristau izatea; 2) Zer da Eliza? Erantzun guztietan, alan edo olan, Kristo bere jarraitzaileekin alkartuta agertzen da. Kristo ta Eliza ez dabez sakabantuta ulertzen, alkartuta baino. Batek baino geiagorik eskatu jaken, irudi baten bidez, alkartasun ori agertzeko, ta geienak, zugaitz eder bat margoztu eusten sinbolo bezala. Kristo agertzen da zugaitz orren sustrai bezela ta Eliza enbor lez. Ta zazpi adar eder sakramentuak adierazteko. Sinbolo au oso aberatsa iruditzen jat, ain ederto euren fede esperiantzia erakusten dabenez. Ez dago gaurko gazteentzako Kristori jarraitzerik eliz-komunitatean izan ezik. Orain 15-20 urteko gazteak esaten ebana: «Kristo bai, Eliza ez», gaurko gazteek ez dabe inondik onartzen. Gaurkoen esperientzia beste au da: «Ezin da Kristori jarraitu beste fededunek alboraturik, au da, eliz-komunitateak egin gabe». Ezperientzi onek ondorio onuragarriak ekarriko dabenek

ezin ukatu! Kontzilio osteko gazteek sortutako komunitate txikiak sakabanatuta Elizaren aurka sortu ta amaitu ziran. Arrisku ori ez da sentitzen gaurko gazteen komunitatetan. Gaur Elizaren sustraira jotzen dabe geienak, estruktura aldakorretan dantzan geratu gabe.

Gaurko gazteek askotaz mistika sakonagoa daroe biotz barnean. Elizaren utsegite, erru ta pekatuak baino, Eliza orren «altxor gordea» (Jesukristo) estimatzen dabe. Berari begira nai dabe beste fededun pekatariekin jarraitu. Orixe da izan be, eurentzat Elizaren biotza ta Elizak eskeintzen deuten gauzarik onena ta ederrena. Orixe da Elizak bakarrik emon leikioen «altxor gordea».

Moral maillan be gure gazteek agertzen dabez aldakuntza galantak. Bein baten baino geiagotan entzun izan dot: «gaurko gazteek narrua jo ta «videoek» ikusi baino ez dabezela egiten». Ori ez da egi garbia. Seksu-artuemonetan ikuspegi orokorrago batetik abiatu dira gure gazteak. Ez dabe edozer bide onartzen. Onetaz be makina erantzun eder entzun izan ditut. «pertsonek ez dira piztiak ezta seksu gabeko aingeruak be». Gazte baten erantzun onetan biribildurik dago gazte askoren iritxia. Kristoren zorientasunetik geien bat azpimarratuak, nesken artean beintzat, auxe izan zan: «Zorionekoak biotz garbiak, Jaungoikua ikusiko dabe-ta». Mutilen artean, oster, beste au izan zan: «Zoriontsuak zuzentasunagaitik aurrean erabiliak».

Beste moral problema batzutan be, esaterako, aur-galtzea edo eutanasia edo ezkontz-austea dala-ta, ez dabe edozelako konponketarik onartzen. Ez dabil urrin gaurko gazteengandik Jesusen ezpiritua.

### **Utz batzuk**

Ezin amaitu lantxo au, gaurko gazteen fedean dagozan uts batzuk aztertu barik. Batzuk gazteei zuzenean lotuta dagoz ta beste batzuk euron ezitzaille ta monitorei.

Lendabizi, gaurko gazte taldeak demokrazian eziak izan di-

ralako edo pakezatasunean edo ekologismo giroan mogitzen diralako, baliteke eliz-komunitate benetakoak baino «estufataldetxoak» osotzea. Arrisku ori naiko nabaritzen ete dan nago. Talde batzuetan alkarganako sentimentuak lar samur ta sentikorrak dira ta oso zaila egiten jake kristau fedea talde orretatik kanpo bizi izatea. Or badago «estufa-taldetxoek» arriskua. Txarrragoa da, oraindio, kristau taldeak «jostun-kutxa» biurtzea. Au da, edozein jokabide, ezer bereiztu barik, baliogarrizat onartzea, Kristoren eliz-komunitateak egiteko.

Beste uts bi oneik ezitzaille ta katekesi materialengandik datoz. Bada pastoraltzaren koordinaketaren premiña. «Umeen, gazteen eta adiñekoen pastoraltzan koordinaketa aundiagoa lortu nai dogu gure elizbarrutietan. Au egitearekin, ala nai dabena-ri, fede-eldutasunean aurrera egiteko bide osoa eskaiñi nai dau-tsagu, pastoral arretan utsarterik utzi gabe» iñoskuen orain bost urte Euskalerriko Gotzaiek. Gurari eder au asi da lenengo pausuak emoten baina bere el-muga urrin ikusten da gure artean beintzat. «Maillaz mailla tajaturiko pastoraltza baten bearra» gordin daukagu oraindio.

Kristau ezitzaille ta monitorenk darabilguzan katekesi-materialen batasun premiña be badaukagu. Esan leike, kristau ezitzaille bakotxa bere biderik naiko aske dabilela. Batzuk «katekesi-kerigmatikoa» onartzen dabe, besteak «katekesi-antropologikoa», angoak «katekesi-politikua», emengoak «askatasun katekesia», urrengokuak «katekesi katekumenala» ta albo-koak «katekesi-karismatikoa». Ainbat bide zidor ikusirik, eldu dala ordua, uste dot, ezperientzi guzti orrein onurak alkartzeko garaia. Gazte maillan badogu katekesi sintesi premiña. Umeen katekesian pausu ederrak emoten ari dira euskal erriko elizbarrutietan. Gazte maillan naiko sakabanatuta gabiltza.

«Gazte-Urte» au amaitzera doa. Kriatau euskal gazteek iñoiz aaztu bear ez dabezan berbak bai dirala onexeek: «Zuek zaree Ebanjelioa gazteen munduan otsegitera deituak -diñotse Euskalerriko Gotzaiek-; gazte fededunari Ebanjelioaren indar salbatzaillea aurkitu dozuela-eta, ez zaitetze or gelditu; zabaldu bes-

teei ere. Otoitzaren eta Jainkoarekiko topaketaren poza aurkitu dozuela eta, ez zaitzela or gelditu; erakus egizue otoitz egiten. Zuen kristau taldeak ba dituzuela eta, ez zaitzela or gelditu. Otsegin bildur gabe zuen fedea. Parroki bakoitzean, auzo eta baillara bakoitzean, saia zaitzte Ebanjelioa ziñetan artu dabena gazteekin topaketak egiten. Kristau gazteen talde barriak sortzazue. Jesusen Ebanjelioa zabal ezazue».

*A. Olea*